

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Martin Albisua Larrea

*Bergara,
Gipuzkoa
(1918-1996)*

Aurkibidea



Biografia



1918ko azaroaren 18an jaio zen Elorregiko Elkorobarrutia baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Urrexolakoa. Josepa Gorosabelekin ezkondu zen, eta honen jaiotetxera, Elkorora, joan ziren bizi izatera. Handik urte batzuetara, Bergarako San Antonio kalera joan ziren bizitzera eta bertan eman zituen bere azken urteak. Ikazkintza lanean hainbat urtetan jardun zuen; Josepa Gorosabel bere emaztea ere aritu zen langintza horretan.

Zintak

BER-095

- **Proiektua:** Karobiak, txondorrak eta elurzuloak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Data:** 1994-02-01
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Bergarako Udala

BER-096

- **Proiektua:** Karobiak, txondorrak eta elurzuloak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Data:** 1994-02-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Bergarako Udala

Pasarteak

1. Ikazkintza

- **Erref:** BER-095/002
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Ikazkintza. Txondorra zelan prestatzen den. Ikatz asko egiten zuten, urtero-

urtero. Behin, 526 zaku ikatz eman zituen txondorra egin zuten. Pago egurra. Sua behetik gora igotzen da eta goitik behera joaten da egosten. Suetxea. Ikazkintzaren inguruko lexikoa.

2. Txondorra egiteko prestaketak

- **Erref:** BER-095/003
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Txondorrak egiteko tokiak. Aurretik erabilitako tokirik ez badago, prestatu egin behar da. Iduririk ez badago, zama eraman behar da; zoia.

Transkripzioa

- Lehen ez badao lekua, batzutan lehenaoko tokiak izeten dia, ezta, txondorra eitteko, ta han egoten da idurixa ta lehengunian esan giñuan horrek. Idurixa-ta han egoten dia, baiña ez baldin badao, zohixekin ein bihar, zohixak ekarri bihar. Bideik be ez zan egoten lehen [ta igual ekarri biher izeten zan] zaman. Zamia jakingo dozue ze dan...
- Zer da zamia?
- Zamia da abarren geñian ipini zohixak, abar mordo bat ipini lehelengo azpiken ta gero haren geñien zohixak ta gero narrasian eruan behera hori txendorro daon lekura. Ez badao lurrik, hori zeroi, idurixa ez badao hori ein bihar da. Zohixekin. Lehenengoko zera. Ta orbela da oso peligrasua.
- Zeaittik?
- Laban [eitten dau haretxen] gaiñian. Berotzen danian, ezta? Lurruna edo izardixak berotzen danian, "dssssssuu!" Danak hanka. Hari eitten jako, ba, eitten gontsan [hesixa] sartu takien-takien buelta guztien edo [...] be bai, ez deiken han behera... laban ein [ez deiken], jausi ...

3. Txondorra egiteko prestaketak

- **Erref:** BER-095/004
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:06:14. **Bukatu:** 00:08:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Ikazkintza. Garoa orbela baino hobea da txondorra tapatzeko; orbelak sua ateratzen du; garoak ez, motelagoa da.

Transkripzioa

- Eta...
- Orbela baiño garua da hobe. Garua beti latzaua da ta garua hobe.

Tapatzeko be, zerakin, idurixakin tapatzeko be da hobia garua. [Orbelian], ipintteko era... paliakin be ez jako bota bihar izaten, zestuakin bota bihar izaten jako. Holako zesto txiki bat hartu bete-bete ta [...] zapaldu-zapaldu-zapaldu, hartu ta gora. Garua [...] ta gero zapaldu, eskuakin ondo zapaldu danian. Guk hortara eitten giñuan ta orbela da txarra. Gero be bai, freskatzeko denporan be oso txarra. Egosittakuan orbela han dao, haura be egositta eitten da bestien moduan, egurra bezela, baiña sua etaratzen dau asko. Garuak ez, garua motela da. Garuak... hillaia geratzen da. Ta gero freskatzeko denporan be egosten danien, dana egosten danien, hautsa bajatzerakuen be oso txarra da haura. Garua oso libre etorten da behera zerakin, idurixakin batera —idurixa egoten da, ba [birin-biriña] dana suen egoten da haura, gori-gorixa.

- Zelan egoten da, [birin-birin]?

- Ez zan egoten ha dana su zera... gorixa., gori-gori-gori eindda, [zeindda gorriña gorixa] bezela. Haura orbelakin batera oso txarra da, dana sua sartzen da... ekartzen dau goittik behera eta ez da libratzen, gaiñera, orbela garuan moduan. Garua bai, garua ondo. Ta puntatik [balidin badao] holako zati bat, "da!" kendu zera, hori idurixori, erreta daon hori goriori beheko barrenera ta puskat harrotu zera, bera, iketza, aldiko tramo bat. Ta haura einddakuan, harrotu ta zertutakuan, hartu behetik eta idurixa botatzen jakon berai gora atzera. Hoztuta egoten da puskat. Bota ta gero [...] bat ein, "ra-ra-ra", leundu. Freskau, handik freskatzen da haura. Buelta guztian horixe ein bihar jako poliki-poliki-poliki. Gu hiru laun ibiltzen giñan: batak bajatzen otsan idurixa behera, harrotu be bai ta bestiak gero gora bota. Atzian oienak, hirugarrenak, hustu [...] "ra!" igurtzi, leun-leun-leun [ipini dana] ta freskau. Handik freskatzen da haura.

4. Ikatza txondorretik nola atera

- **Erref:** BER-095/005
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:08:43. **Bukatu:** 00:10:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

"Iketz-plazia", ikatza atera eta garbitzeko tokiari esaten zioten. Eskuarearekin batzen zen. Ikatz zati txikiagoak, beste zaku batzuetan sartzen zituzten. Galbahean eraldi egin behar izaten zen.

Transkripzioa

- Eta txendorrán onduen gero ikatza atara edo, ba, zakutan sartu edo holan leku... Egoten zan leku aproposa...

- Egoten da iketz-plazia esaten jako.

- Iketz-plazia?

- Iketzan plazia esaten jako, iketza etara ta eukitzeko lekua. Garbittu, bedarrak eta kendu eta garbi-garbi-garbi ipiñi, ez lurrik eta ez adarrik eta ez dein egon, garbi, gero jasotzeko be. Ta harek lagatzen jako bi lekutan edo hiru lekutan edo, ba, txendorrari buelta guztian lagatzen jako. Ta hara eruaten da eskubarakin arrastaka eruaten da. Eskubaria [egoten] da, hola, luzia, hortzak luziak eukitzen dittu. [Hortzdun] zer harekin iketza bape maltratau barik eruaten da. Ta gero ondoko xehe haura beste eskubara bat

xehiauakin, holako tamaiño inguruko hortzakin, “rraa”, harekin batzen da dana. Ta [harendako bihar dabe] bi galdare: haundixandako bihar dau mietza daukana zuluak; ta txikixana bihar dau, ba, txikixauak. Han eralgi ta ya han geratzen dana harrixak edo zera baldin badauka apartau ta haura zakura.

- Larraiña edo esan dotsazu iños horri?

- E?

- Ikatz-plaziai, ikatz-larraiña edo...?

- Ez, ez, beti plazia esaten gontsan. [... etaratzen giñuana]. Han eukitzen giñuan goizian etara... Jeneralmente, iketza goizian etaratzen da ondo; gaba peligosua. Eske iketzak sua etaratzen dau, ba, nunbaiten eskiñan baten, han edo bestian. Ta gabian [...] geu akordatzeke iketz dana erre ein leike. Ta, ba, goizian etara ta nahi baldin bada atsaldian sartu ta hurrengo goizerako bestela laga. Lehenao esan notsuen, ezta? Pisua hartzeko ihintza [da ona]. E? Ura bota ta moteldu eitten da. Iketza, gaiñera, zaratia [be kendu] eitten jako; dana geratzen da egur-koskorak izetia moduko zaratia, baiña bestela egoten da urriñerako zaratia eukitzen dau, e?

5. Ikatza egiteko materialea

- **Erref:** BER-095/006
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:10:38. **Bukatu:** 00:11:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Egurra bringatu egin behar da burdin ziriarekin; ikatza egiteko primerakoa izaten da.

6. Txondorraren inguruko azalpenak

- **Erref:** BER-095/007
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:11:27. **Bukatu:** 00:12:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

"Ikaztoi-zuloa", txondorra egiteko tokia. Batzuetan eginda egoten da; beste batzuetan berria egin behar izaten da. Toki berrietan, iduririk ez da egoten eta zoia eraman behar izaten da. Iduria dagoenean, bueltan-bueltan ipintzen da.

7. Txondorraren inguruko azalpenak

- **Erref:** BER-095/008
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:12:27. **Bukatu:** 00:13:37

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Ikaztoi-zuloa, txondor-zuloa, gauza bera. Txondor-zuloaren inguruko zuhaitzak moztu egiten ziren.

8. Txondorraren inguruko azalpenak

- **Erref:** BER-095/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:13:37. **Bukatu:** 00:15:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

Txondorra batzuetan etxerako eta bestetan kanpoan saltzeko egiten zuten.

9. Ikazkinen lan-banaketa

- **Erref:** BER-095/010
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:15:42. **Bukatu:** 00:18:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikazkinen lan-banaketa. Txondorra egiterakoan erabiltzen ziren tresnak. Ikatz-zakua; eskuarea; aizkorak; e.a. Ikatz-a ahal den hotzen atera behar da.

10. Ikazkinen lan-banaketa

- **Erref:** BER-095/011
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:19:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikazkinen lan-banaketa. Anaia kargatzaile oso ona zen. Txondorra ondo kargatzearen garrantzia.

11. Txondorra egiteko urte-sasoi onena

- **Erref:** BER-095/012
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Sasoirik onena txondorrek egiteko, uda izaten zen. Udazkeneko haizea arriskutsua zen.

12. Ikazkinak

- **Erref:** BER-095/013
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:21:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Beste batzuendako txondorra egin zutenean, beraien lanak zeintzuk izan ziren: egurra xehetu; txondorra prestatu, egosi; ikatza atera...

13. Egurraren prestaketa-lanak

- **Erref:** BER-095/014
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:21:02. **Bukatu:** 00:24:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Etxean egindako txondorra. Zuhaitzaren zati desberdinak; txondorrean maila desberdinetan jartzen ziren. Zuhaitzak inausi egiten ziren antzina ikatza egiteko.

14. Egurraren prestaketa-lanak

- **Erref:** BER-095/015
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:24:31. **Bukatu:** 00:28:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Zuhaitzak botatzeko erabiltzen diren tresnak. Egurra txondor-zulora zelan eramaten zuten.

15. Egurraren prestaketa-lanak

- **Erref:** BER-095/016
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:28:11. **Bukatu:** 00:30:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Zuhaitzak botatzerakoan, batzuetan bata bestearen kontra etzanda geratzen zen. Enborra zenbat zatitan ebaten zuten. Neurriak. Enborra bringatu ikatza egiteko.

16. Ikazkintza

- **Erref:** BER-095/018
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:32:24. **Bukatu:** 00:36:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Mendian txabola izaten zuten. Txondorra egiterakoan kontutan izan beharrekoak.

17. Ikazkintza

- **Erref:** BER-095/021
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:37:54. **Bukatu:** 00:42:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Argia zerekin egiten zuten: petrolioarekin; farolarekin; e.a. Minerala ateratzen zen inguruan.

18. Neska-laguntzea

- **Erref:** BER-095/022
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:42:26. **Bukatu:** 00:44:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Lasto-azaoekin ere egiten zuten argia neska-laguntzen joaten zirenean.

19. Ikazkinak

- **Erref:** BER-095/023
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:44:26. **Bukatu:** 00:48:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Txondorrean lan egiteko erabiltzen zuten arropa. Umetan erabiltzen zuten arropa.

20. Gizonezkoen arropak I

- **Erref:** BER-095/025
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:54:35. **Bukatu:** 00:56:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gizonezkoen arropak. Galtzerdiak beharrean, trapu bat erabiltzen zuten. Pedro "abarkeruak" saltzen zituen trapu horiek. Sasimedikuak.

21. Gizonezkoen arropak II

- **Erref:** BER-095/026
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:56:10. **Bukatu:** 00:57:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gizonezkoen arropak.

22. Ikazkintza

- **Erref:** BER-095/027
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:57:53. **Bukatu:** 01:00:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikazkintza. Zer jaten zuten mendian.

23. Sukaldean, beheko sua

- **Erref:** BER-095/028
- **Iraupena:** -1 day, 23:59:50. **Hasi:** 01:00:10. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Beheko sua. Sukaldean erabiltzen ziren tresnak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com